

OINARRIAK

NORI ZUZENDUA

18 eta 30 urte arteko pertsona fisikoak, Erandioko udalerrian erroldatuta daudenak edo udalerriarekin lotura akademikoa dutenak. Banaka edo taldean har dezakete parte lehiaketan.

HELBURUAK

Ekintzailatza-grina eta ekimen berritzaileak piztea, aukerak eskainiko dituen etorkizuna bultzatzeko.

Talentua, talde-lana eta lan eta esfortzu pertsonala sustatzea. Prestakuntzak enpresa edo zerbitzu berriak sortzeko duen garrantzia azpimarratzea.

Lan bila dauden pertsonen ahalduzko tresnak eskaintzea. Ikasketak amaitu dituzten pertsonen ekintzaile izateko gaitasunak ematea.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

18 urte baino gehiago izatea.

Erandion erroldatua egotea edo udalerriarekin lotura akademikoa izatea.

Erandioko Udaleko langileen edota lehiaketa abiarazteko kontratatutako duen enpresako edo enpresetako langileen ezkontidea, ondorengoa edo ahaidea ez izatea (2. mailara arteko odolkidetasun edo ahaidetasuna, 2. maila barne).

Proiektua edozein euskarritan aurkez daiteke, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

Paperean: 5 orri, alde batetik idatzita
Bideoa: 3 minutu
Aurkezpena: 5 minutu

IZENA EMATEA ETA PROZESUA

Lehiaketan izena emateko, bete inprimakia Erandioko Behargintzan edo honako helbide honetan: bit.ly/aktibatuzureideiak

Izena emateko epea 2019ko uztailaren 3tik 2019ko irailaren 30era arte izango da.

Parte-hartzaileak izena eman ondoren, informazio- eta prestakuntza-saio batzuk egingo ditugu proiektua sortzen eta hobetzen laguntzeko.

Proiektua entregatzeko epea 2019ko azaroaren 1etik 2019ko azaroaren 15era izango da.

Proiektuak posta elektronikoko bidez entregatuko dira udalgaztediplana@erandio.eus helbidean edo Erandioko Behargintzan, gutun-azal itxian, eta "Aktibatu Zure Ideiak" eta parte-hartze zenbakia adierazita.

NOLA BALORATUKO DIRA PROIEKTUAK?

Proiektu bakoitzak sari bakar bat jaso dezake, proiektua egin duen pertsona-kopurua edozein delarik ere.

Epaimahaiak 0 eta 10 arteko puntuazioa emango dio proiektu bakoitzari, honako irizpideak kontuan hartuta:

- Baliagarritasuna: konpontzen duen arazoaren tamaina eta hartzaile potentzialen kopurua kontuan hartuko dira.
- Balio ekonomikoa: proiektuak negozioa sortzeko edo errentagarritasun ekonomikoa izateko duen potentziala.
- Izaera berritzailea: proiektua Erandion aurretik egin ez dela kontuan hartuko da.
- Bideragarritasuna: proiektua oinarri hartuta zerbitzu edo produktu berri bat sortzeko erraztasuna.
- Kalitatea eta argitasuna: aurkezpenaren koherentzia eta argitasun-maila.

Aurreko irizpide bakoitzagatik 0 eta 2 puntu artean emango dira.

SARIAK

3 sari emango dira:

1. saria.....	1.500,00 €
2. saria.....	1.000,00 €
3. saria.....	500,00 €

Sariak Erandioko Udalak emango dizkie irabazleei, Behargintzaren bitartez.

Sari-banaketa lehiaketaren amaiera-ekitaldian egingo da, abenduan.

Zalantza edo iradokizunik izanez gero, jarri harremanetan gurekin helbide elektronikoko honen bidez: udalgaztediplana@erandio.eus